

URA-URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ETA VOST- EUSKADIREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

2.024ko urtarrilaren 8a.

BILDUTA

Batetik, Antonio Aiz Salazar, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia. Eta, bestetik, Alazne Villar Martin andrea, VOST EUSKADI Euskadiko Larrialdietako Boluntario Digitalen Elkarteko presidentea.

Eta, bestetik, Alazne Villar Martin andrea, VOST EUSKADI Euskadiko Larrialdietako Boluntario Digitalen Elkarteko presidentea.

PARTE HARTZEN DUTE

Lehenengoa, Uraren Euskal Agentziako (URA) zuzendari nagusia den aldetik, Agentziaren Estatutueta 10.3 f artikulua esleitutakoaren arabera.

Eta bigarrena, VOSTEUSKADIko lehendakari gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean AS/B/18188/2014 zenbakiarekin inskribatutako elkartearen estatutueta aitortzen zaizkion eskumenak erabiliz.

Bi alderdiek LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

1. LEHENA.- Bi erakundeek helburu komuna partekatzen dute: herritarren artean autobabesa eta gizarte-ongizatea sustatzea, dagokien protokolo eta tresnen bidez.

2. BIGARRENA. - Uraren Euskal Agentziak kontuak ditu sare sozialetan; bai eta erakundearekin lotutako, zein interes sozialeko gaiei buruzko informazioa emateko web-orria ere.

3. HIRUGARRENA. - Uraren Euskal Agentzia Euskal Autonomia Erkidegoko larrialdi-sisteman sartuta dago.

4. LAUGARRENA. - VOST (Virtual Operation Support Team) munduko hainbat lekutan ezarritako profesional-taldeak dira (VOST Leadership Coalition), eta, modu altruistan, larrialdiz erbitzuen kontuak sare sozialetan eta interneten babesten dituzte: haien mezuak biralizatzen lagunduz eta, batez ere, buloak eta zurrumurruak detektatzen eta neutralizatzen lagunduz, informazio ofiziala eskuragarriago egiteko.

5. BOSGARRENA. - VOST Leadership Coalition erakundeak hainbat herrialdetan eta Estatuan du ezarpena ia autonomia-erkidego guztietan: VOST Euskadi markaren bidez garatzen du bere lana Euskal Autonomia Erkidegoan. Horrenbestez, VOSTen erreferentzia da EAEn, larrialdietan informazio ofiziala eta egiaztatua zabaltzen laguntzeko: baita autobabesa sustatzeko eta Babes Zibilak gizartean duen garrantziari buruzko kontzientziazioa sustatzeko ere.

Ondorioz, bi alderdiek lankidetzaren hitzarmen hau formalizatzeko behar besteko gaitasuna eta ordezkaritza dutela onartuta, honako klausula hauen arabera gauzatuko dute lankidetzaren hitzarmen hau:

KLAUSULAK

BAT: Akordioaren xedea Hitzarmen honen xedea da Uraren Euskal Agentziaren eta VOSTEUSKADIren arteko lankidetzarako esparru orokorra ezartzea, sinaduraren unean edo ondoren adosten diren programa edota proiektuak gauzatzeko.

BI: Aplikazio eremua Hitzarmen honen aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidego osoa izango da.

HIRUGARRENA: Programa eta jardueren bateratuen koordinazioa.

Hitzarmen honen xede diren programak bi erakundeei dagokie koordinatzea, eta VOST-Euskadi izango da hitzarmena indarrean dagoen bitartean garatutako jarduerak eta proiektuak hedatzeaz arduratuko dena.

LAUGARRENA: Jarduerak

Uraren Euskal Agentziak eta VOSTEUSKADIk ezarriko dituzte bi erakundeen arteko lankidetzaren garatzeko jarduerak, Uraren Euskal Agentziaren jarduerak sustatzeko, baita herriarregian erresilientzia sustatzeko edota larrialdietan informazioa emateko ere. Jarduera edo programa bakoitzak proiektu-formatuko dokumentu bat izango du, eta bertan ezarriko dira bi erakundeen artean adostutako lan egiteko moduak eta puntuak.

Alderdi bakoitzak garatu beharreko ekintzak bereziki zehaztuko dira, helburu hauekin:

- Uraren Euskal Agentziaren funtzionamenduari buruzko oinarrizko ezagutzak herritarren artean zabaltzea.
- Herritarrak isurketen arazoetan sentsibiliza daitezen sustatzea.
- Larrialdi-egoeretan garrantzitsua den informazioa ezagutaraztea.
- Prebentzioaren arloan, estamentu publiko eta/edo pribatuekiko lankidetzatza sustatzea.

BOSGARRENA: Barne politikak.

- Bi erakundeek adierazi dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako barne-politikak dituztela.
- Bi erakundeek adierazi dute ingurumena zaintzeko politikak dituztela.

SEIGARRENA: Jarraipen Batzorde Mistoa

Hitzarmen honen garapen eta jarraipen egokia zaintzeko, jarraipen-batzorde bat sortu da. Batzorde hori lau kidek osatuko dute, bi Uraren Euskal Agentziaren (URA) ordezkari gisa eta bi VOSTEUSKADIREN ordezkari gisa. Lehendakaritza Uraren Euskal Agentziaren ordezkari batek izango du. Jarraipen batzordean Uraren Euskal Agentziaren (URA) izenean Jose María Sanz de Galdeano Equiza eta Eneko Albizuri Laucirica egongo dira. VOST Euskadiren aldetik, Isabel Vicente Mira eta Alazne Villar Martin egongo dira.

Batzordea hitzarmen hau sinatu eta hurrengo hilabeteen eratu beharko da. Ohiko edo ezohiko bilera egingo du, lankidetzaren balantzea eta helburuen lorpena aztertzeko, estrategia koordinatuak eta prestakuntza- eta informazio-trukerako planak aplikatzea proposatzeko, eta hitzarmena garatzean sor daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak konpontzeko.

Batzordea urtean behin bilduko da, gutxienez, ohiko bilkuran, eta alderdietako edozeinek eskatzen duenean, ohiz kanpo. Akta egingo da bilera bakoitzaren amaieran.

ZAZPIGARRENA: Datuen babesa

Erakunde sinatzaile bakoitza arduratuko da datu pertsonalen tratamendua arautzen duen araudia betetzeaz, eta konpromisoa hartzen dute Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko.

ZORTZIGARRENA: Hitzarmenaren aldaketa

Lankidetza-hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean aldatu ahal izango da, bi alderdiek hala adosten badute, eta akordio berriak eranskin gisa gehituko zaizkio dokumentu honi.

BEDERATZIGARRENA: Indarraldia

Hitzarmen honek 2024ko urtarrilaren 8tik 2025ko urtarrilaren 8ra bitartean iraungo du.

Akordioa luzatutzat joko da urtez urte, salbu eta alderdi sinatzaileetako batek berariaz eta idatziz salatzen badu gutxienez hilabete lehenago.

Hitzarmena iraungita gera daiteke, alderdiek hala adosten badute.

Eta aurreko testuarekin ados daudela adierazteko, alderdien ordezkariak hitzarmen hau sinatu dute, Bilbon, 2024ko urtarrilaren 8an.

**Uraren Euskal Agentziako
zuzendari nagusia (URA)**

D. Antonio Aiz Salazar

VOST EUSKADIko presidentea



Dña. Alazne Villar Martin

